

Herri bihotzaren nahiz auzo taupadaren jaiak

Bihartik hilaren 19ra bitartean ospatuko dituzte bermeotarrek Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak. Udalak, txosna batzordeak eta herriko eragileek ohitura eta berrikuntza uztartzen dituzten jardueraz osatutako egitaraua ehundu dute.

Alex Uriarte Atxikallende

Bermeotarren agendetak hamarraldirik bereziena, irailaren 7tik 16ra bitartekoa, hastear da: Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak, Bermeoko ospakizun nagusiak, ate joka daude. Udal ordezkariak eta udalerriko talde zein eragileek elkarlanean prestatu dituzte jaiok, eta aurten, herriaren «tradizioari eusteaz» gain, inklusibotasunari eta kalitatearen «bermeari begirako hainbat berritasun» edukiko dituzte.

Asko eta asko izango dira jaiak irauten duten artean protagonismoa izango duten elkarte nahiz norbanakoak, baina aurten bi bermeotar gailenduko dira: Garroa Martinez eta Iñigo Garro. Lehenak txupinazoaren unean Nadia Nemeh alkateari lagun egingo dio udaletxeko balkoian, hura baita jaietako pregoilaria.

Bermeotarrek bozketa bidez erabaki ohi dute, hiru aukeraren artean, jaiari hasiera nork emango dien, eta azkenean herriko halterofilia txapelduna izan da boto gehien jaso dituenen. 1.007 boza jaso dituzte guztira, horietako 464 (%46) kirolariaren aldekoak. Gaintzeko bi aukerak 300 boto jaso dituen Bermeoko Erraldioen Konpartsa (%30) eta 243 eskuratu dituen Alkartasuna Dantza Taldea (%24) izan dira. Udaletik «eskerrik beroenak» eman dizkiete hirurei, «Bermeoren izena zabaltzeko eginiko beharrarengatik».

Garrok, bestalde, Arrantzale Egunean, lore eskaintza eta

omenaldia jasoko ditu. Hain zuzen ere, Garrok 19 urtez jarraian antolatu du Arrantzale Eguneko omenaldi ekitaldia, eta aurten egitasmoaren beste aldea ezagutzea suertatuko zaio. «Itsasoaren eta tokiko arrantzaren munduari egin dizkion ekarpenak» eskertuko eta omenduko dizkiote.

Inklusibotasuna, zutabe

Aurtengo egitarauri dagokionez, Endika Etxebarria Kultura zinegotzia hala Bermeoko Jai Batzordeak, nola Bermeoko Txosna Batzordeak «urte osoan zehar» egindako lanaz mintzo da: «Bermeokoak herritarrek herritarrentzat prestaturiko jaiak dira, eta horrek egiten ditu herrikoiei eta parte hartzaile». Hain zuzen, herritar guztien inklusibitatea izango da aurtengo bandera nagusia. Joandako urteetan abiatutako neurriei eusteaz gain, urrats berria egingo dute: Lamerako kontzertugunean mugikortasun urriko pertsonentzako plataforma ipiniko dute. Gorpildun aulkian dabilzan eta gutxienez %33ko desgaitasuna duten herritarrei zuzenduta egongo da. Inklusibitatearen aldeko apustua ez da hor amaituko: aurten ere zeinu hizkuntza txertatuko dute txupinazoko pregoiaren irakurketan.

Oraingoan ere, txupinazoa 20:00etan egingo dute, herritarrik gaztetxoek ere «jaiari hasieraz goza dezaten». Bai su artifizialak, bai Xixiliren doluzko ibilbidea, aldiz, 21:30ean egingo dira. Barraka isilak ere mantenduko dituzte, eta gaur zein hilaren 14an «prezio herrikoia eta

ordutegi isilak» edukiko dituzte; 21:00rak arte musika barik ariko dira barrakak.

Egitarauaren aldetik ere egitasmo berririk egongo da. Batetik, bihar Salome Campos itsas igeriketa zeharkaldia berreskuratuko dute; bihar zortzi, oster, Sukalki Eguneko lehiaketa ospatuko dute, Talan, Eleizalde Ikastolak antolatuta.

Herriko taldeen urtemugak

Bermeoko hainbat talderentzat, jaiak eta urteurrenek bidegurutzean tupust egingo dute. Benito Barrieta Arte Elkartearen 75. urtemuga probestuz, urtero Arrantzaleen Kofradia Zaharrean antolatzen duten erakusketaz gain, beste erakusketak «berezi bat» prestatuko dute, Nestor Basterretxea aretoan: «Udalaren bilduma pikturikoko obrarik adierazgarrienetako batzuk bilduko dituzte». Bihar egingo dute inaugurazioa; irailaren 9an izan ezik, 16ra arte bisitatzeko aukera egongo. Bermeoko Erraldioen Konpartsa ere hogeituroko bidea beteko du, eta udalak erraldioen panpinak kaleratuko ditu. Lehen aleak irailaren 16an jarriko dituzte salgai, Santa Eufemia egunez. Alkartasuna Dantza Taldea da urtemuga ospatzen duen hirugarren eragilea, zehazki, 50 urteen muga.

Musikaz betetako jaiak dira aurtengoak. ETSk trazatuko du hasiera, txupinazo ostean. «Hainbat estilo eta proposamen» dituen programazioa prestatu dute, hamar egunez jaiari «soinu banda» jarriko diona. Cherry & The Ladies, Oxabi, Txapela Brava, Niña Dío, Merina Gris, Akerbeltz eta Mariachi Imperial oholtzaratuko dira, «kalejira, elektrotzaranga edota trikitilari saioez gain».

Jai egutegia Almikan hasiko da, hango Jai Batzordeak antolatutako jaiekin. «Gustu guztietarako hainbat proposamen» bilduko dituzte, etziko Untxi Sukalki Egunez hasita. Astelehenean, Almikako jaitiera izango da gailurra. Udalak herritarrei taldeka



Udaleko eta jai batzordeko ordezkariak, aurtengo jaiak aurkeztuz. A.U.A.

parte hartzeko gonbita luzatu die, multzo bakoitzak bere izena zein moztorra aukeratuta eta izena emanda. Jaitiera orduko, berritasunak txertatuko dituzte: musika jartzailea, moztorra lehiaketa eta turuta tailerra egongo dira. 18:00etan hasiko dute behe-ranzkoa.

Maite Caruezo Gazteria saileko zinegotziak jaiak «errespetuz eta askatasunez» gozatzeko deia egin

du: «Bizi ditzagun jaiak askatasunez, inongo eraso barik». Aurreratu du irailaren 7, 9, 11 eta 12an Bermibus Gautxoria martxan egongo dela, ordu erdiro, 00:00etatik 05:00etara. Gautxoria dagoen egunetan, Puntu Morea ere ipiniko dute, liburutegi alboan. Leku berean, irailaren 11n, alkohola kontsumitzeagaz lotutako arriskuak prebenitzeko zerbitzua egongo da, 21:30etik 00:30era. ●



**EGITARAUA EGUNEZ EGUN****Bihar.**

11:00. Salome Campos itsas zeharkaldia, Espigoian.

18:00. Bermeo MESI Masters txapelketaren finala, Artzan.

18:00. Ross dantza tailerra, txosnagunean.

19:00. Motx pailazoa, txosnetan.

19:00. Herriaren ondarea erakusketaren inaugurazioa, Nestor Basterretxea aretoan.

20:00. Txupinazo Txiki, txosnetan.

Etzi.

10:30. Dunbada, ikurrina jaso eta bolandera jaurtiketa, Almikan.

10:30-11:30. Untxi sukalki txapelketarako izen ematea.

Goizean. Trikitia eta Kontxako estropaden jarraipena, Almikako txosnan.

11:30. XLIV. Bermeo Hiria Open Bizkaia, Artzan.

13:00. Meza, Almikako elizan.

13:30. Sukalki txapelketako kazolen aurkezpena.

13:50. Nesken giza probak.

17:00. Almikako V. irrintzi lehiaketa.

17:30. Erromeria, Elustondo neba-arrebekin.

18:30. Sukalki txapelketaren sari banaketa.

Arratsaldez. Puzgarriak.

Irailak 7, astelehena.

11:00. Itsasoko Egunerako izen ematea, Espigoian.

12:00. Itsasoko Eguna.

14:00. Kukaina eta sari banaketa.

16:00. Jon Urbietia DJ-a, Almikan.

Bitartean. Mozorro lehiaketa eta turuta tailerra.

18:00. Almikako jaitsiera.

18:30. Topa egitea, Erriberan: *Helmuga, denak etxera.*

19:45. Xixiliren aurkezpena, Goiko plazan.

20:00. Pregoia, ikurrina jasotzea eta dunbada, Goiko plazan.

Ostean. Aurrekua eta jaitsiera, txarangagaz.

21:30. Txosneroen txupinazoa, txosnagunean.

22:00. ETS, Lameran.

00:00. MJ Maripili, txosnetan.

Irailak 8, martitzena.

08:00, 11:00 eta 13:00. Meza.

10:30. Alkate Soinua, Goiko plazan, eta Almikara igoera.

Goizean. Bermeoko musikariak.

11:45. Udalbatzari ohorezko aurrekua, Almikan.

Ondoren. Bermeoko Erraldioen Konpartsa.

13:00. Aiarako musika banda, Lameran.

13:30. Barrueta Arte Elkartearen LXX. erakusketaren inaugurazioa, Arrantzaleen Kofradia Zaharrean.

13:45. Almikako IV. belar bola eroate txapelketa.

13:45. Trikiti bikotea.

16:30. Umeentzako skate eta patinete tailerra, Lameran.

17:00. Mus txapelketa, txosnagunean.

18:00. Skate erakustaldia, Lameran.

18:00. Umeen danborrada.

18:00. Idi probak, Almikan.

21:00. Ikurrina jaitsiera, Almikan.

21:30. Suziriak, Espigoian.

22:00. Cherry & The Ladies, Lameran.

Irailak 9, eguaztena.

11:00. Meza, Santa Eufemia elizan.

Ostean. Kalejira eta Iñigo Garro Jimenezi lore eskaintza eta omenaldi ekitaldia.

13:00. Aurrekuak eta zabaletakoak, Goiko plazan.

13:30. Jaitsiera eta Taraskari lore eskaintza, Goiko plazatik hasita.

14:00-16:00. Beteranoen arratsaldeoa, txosnagunean.

Arratsaldez. Fanfarreak eta trikitilariak.

19:00. Mariachi Imperial, Lameran.

19:30. Xaukena Xauk, txosnagunetik.

20:30-23:30. Testing zerbitzua, liburutegi alboan.

22:00. Oxabi, Lameran.

Ondoren. MJ Reketabe, txosnagunean.

02:00. Errelebo txosneroa, txosnagunean.

05:30. Argazki gaupaseroa, txosnagunean.

Irailak 10, eguena.

13:00. Txapela Brava, Lameran.

16:00-20:00. Puzgarriak, Erreten Lameran eta Erriberan.

18:30. XLIV. Bermeo Hiria Open Bizkaia, Artza frontoian.

18:30. Bingo musikatua, txosnagunean.

19:00. Txalaparta erakusketa eta tailerra, txosnagunean.

21:00. Bertso saioa, Artza frontoian.

Irailak 11, barikua.

15:30. XXI. Alkartasun Batel Estropadarako izen ematea, txosnagunean.

16:00. Euskal errepresaliatuen aldeko XXI. Alkartasun Batel Estropada, Arrantzaleen Kofradian.

18:00. Nagusien danborrada.

19:00. Queer poteoa, txosnagunetik.

20:00. Bermeo-Arratia, Itsas Ganen.

21:30. Alkohol kontsumoaren arriskuak prebenitzeko zerbitzua, liburutegi ondoan.

22:00. Niña Dioz, Lameran.

Gero. Merina Gris, Lameran.

Ostean. Barrrk, txosnagunean.

02:00. DJ Pibikens, txosnetan.

Irailak 12, zapatua.

10:30-15:00. *Ortube* ontzian bisita gidatuak.

11:00. Sukalki txapelketarako izen ematea, Talan.

11:00 eta 11:30. Umeentzako gilda tailerrak, Talan.

12:00-14:00. Umeentzako jolasak, Talan.

13:00. Kazolen aurkezpena, Talan.

17:00. Sari banaketa, Talan.

18:00. Umeentzako tailerrak, txosnagunean.

18:00. Fanfarrea, Talan.

19:30. Xixiligaz jaitsiera, Talatik Goiko plazara.

20:15. DJ Kaktus *Bihurriak gara!* dantzaldia, txosnagunean.

21:00. Suzko zezenak, Goiko plazan.

22:00. Akerbeltz, Lameran.

23:30. Abiadura lasterketa, txosnagunean.

Erromeriaren ondoren. DJ Zatzaz, txosnagunean.

Irailak 13, domeka.

11:00. Itsasontzien irteera Gaztelugatxera.

11:30. XLIV. Bermeo Hiria Open Bizkaiairen finalak, Artzan.

12:00. Hitzaren ospakizuna, monolitoan.

12:30. Begoña Ama Birjinari lore eskaintza.

13:00. Bitsaren jaia, Erreten Lameran.

13:30. *Haurreskolari* ikuskizuna, Lameran.

18:00. Herri Kirolak, Lameran.

18:00. Jon Basaguren eta Libe Kortazar, Frantziskotarren Elizan.

Irailak 14, astelehena.

Egun osoan. Zaharren egoitzako

egoiliarren irteera Almi-kara; bertan, bazkaria eta KOZen kontzertua.

17:00. Tortilla txapelketa eta

eskalada txosneroa, txosnagunean.

17:00. Jolasak, Irakaskintzan.

18:00. Txokolatea, Irakaskintzan.

18:00. Umeen postre lehiaketa, txosnagunean.

21:00. Eingule? lehiaketa, txosnagunean.

Irailak 15, martitzena.

17:00. Mus txapelketa, txosnagunean.

18:00. Play-back txapelketa, Lameran (euria bada, 18an).

Irailak 16, eguaztena.

10:00-15:00. Baserri giroko azoka, Lameran. XII.

Oiloen erakusketa, Euskal Oiloaren Bizkaiko X.

Txapelketa eta Bermeoko abereen erakusketa, San Frantzisko enparantzan.

12:00. Talo tailerra, txosnetan.

12:00. Alkate soinuak, Goiko plazan; gero, Gaztelurantz.

Jarraian. Alkate soinuak, Bermeoko Erraldioen Konpartsa eta Aiarako musika banda, Gaztelun.

Ondoren. Erraldioen kalejira, Gaztelutik Portuzarrera.

12:00. Arrekatxutxa trikitilariak.

13:00. Balkoitik balkoira bertso saioa, Gaztelun.

19:00. V. Bermeo Hiria Inpesca Pilota Festibalararen finala, Artzan.

19:00. Aiarako musika banda, Lameran.

19:00. Xixiliren kluedoa, txosnagunean.

21:30. Doluzko ibilaldia, Xixiliri agurra eta erretzea.

Ondoren. Suziriak.

Irailak 18, barikua.

18:30. *Feminista jaio ala hil egiten da?* bakarriketa, Bekoportalen.

Ostean. Bermeoko ahalduntzerako gune feminista sortzeko parte hartze prozesuaren aurkezpena.

19:00-21:00. Arratsaldeoa, txosnagunean.

20:00. Kanta Kanta Lorue.

00:00. Txolimpiadak, txosnagunean.

00:30. MJ Lustre Labana, txosnagunean.

Irailak 19, zapatua.

13:00. Trikipoteoa, Berakatzegaz.

15:30. Herri bazkaria, txosnetan.

17:00. Bazkaloste musikatua.

18:00. Bermeo Hiriko XLIV. Ikurri-na-BBK Bandera.

18:30. Kuadrillen lehiaren sari banaketa, txosnagunean.

22:00. Ziraun eta Sustrai Berriak, txosnagunean.

02:00. DJ Aska ta Suna, txosnagunean.



ongi etorri Bermeora! Gora Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak!

DANON PARTEZ, ONDO-ONDO PASA!

Akelarre
BAR-JATETXEA

94-471 32 34 · 675 06 41 76

akelarrebarbermeo@gmail.com
www.akelarrebermeo.com



Almiketxu
Erreteria

Almike auzoa, 8
BERMEO
94-688 09 25
almiketxu@gmail.com
www.almiketxu.com



Arolan 21

Altuerako lan profesionalak

94 640 06 74

info@arolan21.eus

Polígono Lamiarape,
Pabellón B 21, 48360
Mundaka - Bizkaia

Jarrail gaitasun sare sozialetan!
@arolan21

Web gunea: www.arolan21.eus



ÍZARO

Izaroren zure produktu gogokoenak
online eska ditzakezu



Etxez etxe
banatzen dugu



www.izaroirishpub.com



Kai alde

94-604 2172 | Nardiz Tar Benantzio Kaia 9 BERMEO



OLATU

- www.olatu.net -



699 46 71 71



699 46 71 71

larraurianaia

www.larraurianaia.com

Landabaso poligonoa, 4 . 48370 Bermeo - Bizkaia

Tlf. 94 602 86 15 - 661 38 90 53

larraurianaia@gmail.com

*Jai zoriontsuak izan
eta zentzuz ospatu!*



lan bertikalak

- Segurtasun-sokak.
- Igeltserotza.
- Iturgintza.
- Margogintza.
- Teilatu eta fatxada konponketetan eta mantenimenduan espezialistak gara.

637 982 342

bertikalak@hotmail.com
BERMEO



«Bermeoko kirol klubak jaietako protagonista bihurtu nahi ditut»



GAROA MARTINEZ Pregoilaria

Mediterraneoko Jokoak lehiatu ostean, Bermeora itzuli berri da Garoa Martinez halterofiliaria. Andra Mari eta Santa Eufemia jaien hasierako protagonista izango da, herriarren bozkei esker: bozken %46 jaso zuen.



Garoa Martinez, txapelketa batean. LIFTERMEDIA



Ainhoa Astarloa Beotegi

Herriak aukeratu zintuen aurtengo jaietako pregoilari izateko. Zer sentitu zenuen esan zizutenean?

Lotsa sentitu nuen. Esangura handia dauka niretzat Bermeoko jaietako pregoilariaren lanak, eta beldur puntu bat sentitu nuen herriak nire alde bozkatu zuela esan zidatenean. Ez nuen espero, gainera. Normalean, lehiaketa kontuak direla medio, data hauetan kanpoan egoten naiz, eta beraz, jai eremutik apur bat kanpo sentitzen naiz. Ez nekien herriak pregoilaria aukeratzeko bozka egiten zuenik ere, kar, kar, kar. Hala eta guztiz ere, oso pozik nago; herriak nire kirol ibilbidea balioan jartzen eta aitortzen duela erakusten dit aukeraketa honek.

Jaiak ate joka daude. Hasi zara pregoia prestatzen?

Bai, zabalduko dudana mezua prest daukat dagoeneko. Egitu-

ra eta denbora aldetik laguntza eskatu behar izan dut, baina bizitzan behin egingo dudana gauza izanik, mimoz prestatu nahi izan dut testua. Esan bezala, uste dut erantzukizun handia daukadala, pregoilari gisa.

Zabaldutik nahi duzun mezua zertzeladarik aurreratuko zenuke?

Ezin zen beste modu batera izan: nire mezua kirola izango du abiapuntu. Alde batetik, kirolarietara egingo diet keinu, eta bestetik, kirolariok lehiatzeko eta gure formazioan aurrera jarraitzeko lan egiten duten guztiei. Bermeoko kirol klub desberdinak bihurtuko ditut jaietako protagonista, nolabait.

Jai zalea ez zarela aipatu duzun arren, herriko jaiak aurrera egin dezaten belaunaldi aldatzeko nolako garrantzia duela esango zenuke?

Belaunaldi aldatzea baino, esango nuke orokorrean, jendearen

inplikazioa dela gako Bermeoko eta gainontzeko herrietako jaiak aurrera egin ahal izateko. Gazteak badira, ederto, baina nagusiagoak badira ere ondo. Gakoa jendeak herrigintzan sartzeko gogoia izaten jarraitzea da; jaiak antolatzea, handik eta hemendik mugituzkoa, herriak eta herriko giroak urtez urte aurrera egin dezaten.

Italiatik itzuli berri zara, Mediterraneoko Jokoetatik. Zer moduz ibili zara?

Tarrantotik itzuli berri naiz. Mediterraneoko Halterofiliako Jokoak Mediterraneoko herrialdeetako halterofiliako kirolari onenak elkartzen dituen nazioarteko txapelketa da, eta ni Espainiarekin lehiatu naiz. Espainiako kategoria guztietako hiru atleta hoberenak izan dugu jokoetan lehiatzeko aukera, eta ni lehenengo postuko errepresentazio gisa joan naiz. Laugarren postua lortu dut, eta egia esan ez nago batere pozik emaitza horregaz. Gehiago espero nuen, baina tira, parte hartzea soilik erronka izan da niretzat.

Munduko Txapelketa ere begi-bistan duzu.

Bai, bi hilabete barru Txinan izango naiz Munduko Txapelketa lehiatzen. Denboraldiko azken lehiaketa izango da, eta pertsonalki ez dut emaitza aldetik askorik espero. Nire kategorian maila oso altua dago, eta beraz, ez diot neure buruari inongo presiorik jarriko: nire markak hobetzen saiatuko naiz. Batez ere, Mediterraneoko Jokoetan izan ez ditudan sentsazio onekin bukatu nahi dut denboraldia, munduko atleta trebeenekin lehiatu bitartean. ●



Berritasunez jositako eskaintza, ume zein helduen gozamenerako

● Bermeoko Txosna Batzordeak hiru txosna ipiniko ditu aurten, eta boluntario bila dabilta.

Zalao Iturbe San Jose

Atzerako kontaketa hasita dute dagoeneko bermeotarrek, berdin heldu zein umeek. Umeak izango dira, hain zuzen ere, Bermeoko Txosna Batzordearen eskutik, Andra Mari eta Santa Eufemia jaietan murgiltzen lehenak. Izan ere, jaien hasiera ofiziala astelehenean izango bada ere, bihar bertan ekingo diote Bermeoko Txosna Txiki umeentzako programazioari.

2017an, udalerriko hainbat eragile eta «militante indepentee» bat egin zuten txosna batzorde berria martxan jartzeko helburuagaz eta, geroztik, urtero-urtero beraien proposamenak ekarri dituzte udalerriko jai nagusietara. Aurten ere, egitarau «aberatsa» ondu dute, hainbat berrikuntzagaz datorrena.

Lameran «betiko karpa» ipiniko dute txosna batzordekoek, baina txosnagunea «handiagoa» izango da. Aurten ere txosnagune «bateratuaren» aldeko apustua egin dute bermeotarrek; hala, «herriko hainbat txosnakide eta txandalarik bat egingo dute jaietan, Ernai, Etxalak, Aske, Bermeoko Herri Ikastetxeko Familia kide eta Bermeoko Mugimendu Feministako militanteekin elkarlanean».

Berrikuntza gisa, aurten hiru txosna jarriko dituzte, bi edarientzako eta hirugarrena, janaria erosteko. Horregatik, txandak egiteko «boluntario gehiago» beharko dituzte aurten: «Gure sare sozialetan —@bermeoko-txosnabatzordea— zabaldu dugu esteka. Animatu daitezela lagunekin izena ematera; denon artean txosnak bete eta ondo pasatuko dugu».

Berrikuntzak bertatik bertara ezagutu nahi dituztenek bihar hasi eta hilaren 19ra bitartean edukiko dute horretarako aukera. Txosna eremua txikienean irekiko dute, Ross Dantza Taldearen tailerraren eta Motx Pailazoaren ikuskizunaren ostean, 20:00etan, Txupinazo Txikia botata. Bermeoko Herri Eskolako Familia Elkarteak izango du horren ardura.

Hirugarren urtez egingo dute



Batzordekideak, egitarauaren aurkezpenean. AINHOA ASTARLOA BEOTEGI

aurten Txosna Txiki txosna batzordeak eta herri eskolako familiek: «Aurten udalagaz ere ibili gara ekintza batzuk antolatzen, baita herriko beste eragile batzuekin ere». Gainera, Bermeoko umei zuzendutako programazioa bakarrik ez, «inguruko herrieta-koentzako» ere badela nabarmendu dute.

Gauetz ere jai

Bestalde, txosna batzordearen txupinazioa Ernaikoe botako dute astelehenean, ETS taldearen kontzertuaren aurretik.

Bingo musikatua, eskalada txosneroa... Txosna batzordearen egitarauan errotuta dauden proposamenek jarraipena izango dute aurten. Horiez gain, «gaueko giro ona» sustatu gura dutenez, gaueko jolasak ere egingo dituzte: Arrantzale Eguna luzatzeko, adibidez, 05:30ean Argazki Gaupaserue deitu dute.

Hilaren 9ko hitzordua, jaietarako finkatu dituzten beste hamai-kagaz batera, Kuadrilen Lehiaren parte izango da. Parte hartu gura duten kuadrillek bihar arte dute txosna batzordeak sare sozialen bidez zabaldu duen esteka jarrai-

tuz izena emateko aukera: «Jendea Kuadrillen Lehiaren eta antolatutugun ekintza guztietan parte hartzera animatu nahi dugu».

Protokoloa feminista

Txosna batzordeak, Bermeoko Mugimendu Feministagaz elkarlanean, «azken urteetako saiakera eta akatsetatik ikasi eta eraso sexistak eta klasisten kontrako protokolo berria» ondu du. Erasoak saihestu eta jai giro eroso sortzea «denon ardura» dela azpimarratu dute.

Protokoloak hiru esparrutan lan egingo du: pedagogikoki, prebentzioan eta erantzunetan: «Kolektiboki prestatu denez, ezagutzera ematen da, eta horrek denongan du eragina. Prebentzioan ere laguntzen du, askotan protokolo izateak saihestu egiten dituelako erasoak. Azkenik, erasoaren aurrean erantzun irmoa eman nahi dugu; elkarlana beharrezkoa da».

Aurten ez dute telefono zerbitzurik ipiniko, baina txosnara bertaratuta edo txapa morea daraman norbaiti abisatuz gero, protokoloa aktibatu ahalko da, formakuntza jaso baitute. ●



atsedena eta zu

KOLTZOIAK
EUSKARRIAK
BURKOAK
OHEKO ARROPA

bed's

Don Tello, 19
94-625 57 68
48300 GERNIKA

Atalde, 2
94-602 82 46
48370 BERMEO

Alluitz, 1
94-400 59 80
48200 DURANGO

beds.es

URRESTI

KERAMIKAK || ERAIKUNTZA MATERIALAK

PRODUKTUAK

Eraikuntza materialak
Burdindegia eta eraikuntzarako erramintak
Keramikak eta bainugelak

B d B

eraikuntzako zure denda

94-688 21 52 • urresti@grupobdb.com
Landabaso industrigunea 6 eta 7 - BERMEO

Bitxi

MARGOGINTZA

decoracionesbitxi.net

605 74 85 84 • Aurrekoetxea 16 behea - BERMEO

FIDEL BILBAO, S.L.

FIDEL BILBAO
EFECTOS NAVALES
SUMINISTROS
INDUSTRIALES

desde 1924

Cadena 88
ferreterías

Fraila Leku, 1
48370 Bermeo
www.fidelbilbao.com
T 94 688 04 12
info@fidelbilbao.com

94 688 04 12
info@fidelbilbao.com

Chalokasun Bermeo

Ford

Landabaso
poligonoa
94-688 29 71
673 83 69 78
BERMEO

ZERBITZU OFIZIALA

www.tallereslandabaso.com